



# GEURE BURUA IKUSI EZINDA



Bertso  
sortak

Xabier  
Terreros  
Gartzia



Doinua:

*Igo aurretik lasai*

Hamarreko txikia

Batzuetan zein erraz ikusten ditugun besteen bertuteak, eta zenbat kostatzen zaigun geureak ikusten!

Hamaika urte ditut  
Iruñeko **AURITZ**  
badut familia bat  
adiskide **aunitz**.  
Ikastolan, auzoan  
pozik nabil **hagitz**  
dena dudala, esan  
eta esan **dabiltz**  
sinistuko nieke  
gezurra ez **balitz**...

Ederra da **AMETSEN**  
irrifar **zabala**  
begirada gardena  
hizketa **apala**  
liluratzeko duen  
berezko **ahala**...  
Ederra litzateke  
gelatik **noala**  
niri begiratzea  
berari **bezala**...

**CARLA** da futbolean  
gelako **onena**  
taldearen arima  
taldean **lehena**  
lagunei gol pasea  
ematen **diena**...  
Nik ere noizbait txute  
regate, **txilena**...  
egin nahi nuke berak  
egiten **duena**!

**LUR** algarak zabaltzen  
dituen **sorgina**  
istorio ta txiste  
kontalari **fin**a  
gure txokolatea  
gure **pipermi**na...  
Tarteka izan nahi dut  
bufoi **kaskarina**  
baina ez daukat bere  
grazia **berdina**...

**MOHAMEDEK** Einsteinen  
jakinduri **bera**  
denari buruz daki  
gutxi **gorabehera**;  
berdin du zein den gaia  
ta zein den **galdera**  
matematika, natur  
gazte, **ingelera**...  
Nik aldiz inoiz ez dut  
hamarrik **atera**.

Ikastolan aurten dut  
azkeneko **maila**  
institutuan dator  
hurrengo **bataila**...  
Naizena onartzea  
denez **abantaila**  
nigan sinetsiz hartu  
nahi nuke **abaila**  
ziur ez dela uste  
dudan bezain **zaila**!



Doinu berezia da *Igo aurretik lasai*. Errepika du azken aurreko puntuan.

Biribildu dezagun bertso bakoitzean zein puntu errepikatu duen bertsolariak.